

**GIDALIBURUAREN 2. FASEA: HAUTAGAI IZATEKO
BALDINTZAK, BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEKO
PROZESUA ETA BARRUTIKO HAUTESKUNDE
BATZORDEAK.**

<i>HAUTAGAI AURKEZTEKO BALDINTZAK.....</i>	<i>2</i>
<i>HAUTESKUNDE BARRUTIAK ETA HAUTAGAI ZERRENDAK</i>	<i>3</i>
<i>BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK.....</i>	<i>4</i>
<i>HAUTESKUNDE MAHAIAK</i>	<i>5</i>
<i>HAUTESKUNDE KANPAINA.....</i>	<i>8</i>
<i>ANTOLAKETA LANAK.....</i>	<i>9</i>
<i>BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA: OHARRAK.....</i>	<i>9</i>
<i>UNIBERTSITATEKO KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTAGAI ZERRENDA OSATZEKO EREDUA</i>	<i>11</i>
<i>IKASTEGIKO BATZARRERAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTAGAI ZERRENDA OSATZEKO EREDUA</i>	<i>12</i>
<i>BOTOA ALDEZ AURRETIK EMAN IZANAREN ZIURTAGIRIA UNIBERTSITATEKO KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEAK 2013.....</i>	<i>13</i>
<i>BOTOA ALDEZ AURRETIK EMAN IZANAREN ZIURTAGIRIA IKASTEGIKO BATZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2013</i>	<i>13</i>

Lehenengo faseko azalpenen bukaera izan zen behin betiko erroldak ikastegietan argitaratuko direla. Errolda horiek zehaztuko dute nortzuek eman ahal izango duten botoa abenduaren 10ean eta, baita ere, nortzuk aurkeztu ahal izango diren hautagai moduan.

HAUTAGAI AURKEZTEKO BALDINTZAK

Klaustroko ordezkari izateko hautagai zerrendak, kolektiboak, itxiak eta ordenatuak, idatziz aurkeztuko dira, **azaroaren 20ko 12:00ak baino lehen**, Erregistro Orokorraren edozein bulegotan

(http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p254-content/eu/contenidos/informacion/registro_general/eu_registro/registro_general.html).

Idatzia kasuan kasuko ikastegiko hauteskunde batzordeko buruari zuzenduko zaio, Giza Zientzietako titulazioko ikasleen kasuan izan ezik; ikasle horiek egoitza Idazkaritza Nagusian duen Hauteskunde Batzorde Nagusiari zuzenduko diote idatzia.

Erregistro Orokorreko bulegoek lehentasuna eman beharko diete hautagai zerrendei eta berehala helarazi beharko dizkiote zerrenda horiek kasuan kasuko hauteskunde batzordeko buruari. Hautagai zerrendetan ordezekoak aurkeztu ahal izango dira.

Hautagai zerrenda guztiak **sinatuta egon beharko dira, hau da, hautagai guztien jatorrizko sinadurak izan beharko dituzte**. Hautagai zerrendan gutxien dela bi kide izan behar dira zehaztuta, **emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka gorde behar da eta zerrendan bata emakumezkoa, bestea gizonezkoa, bata emakumezkoa, bestea gizonezkoa...izan behar dira**.

Hautatuak ateratzen ez diren hautagaiak ordezeko izango dira, hautagai zerrendan agertzen diren ordenan, kide hautetsiren batek karguari uko egiten dioenerako edota Klaustroko kide izateari utzi behar dioenerako, hautatua izan zen taldeko kide izateari utzi diolako.

Hautagai zerrenda baten izen bakarra badago, sinaduraren bat falta bada, edo sinaduraren bat jatorrizkoa ez bada, Hauteskunde Batzordeak behin-behinekoz onartuko du hautagai zerrenda, baina honako baldintza honekin: **azaroaren 26ko 12:00etarako** (behin-behineko aldarrikapenaren kontrako inpugnazioak aurkezteko epea ixten denerako, alegia) formako akats hori zuzenduta ez badago, hautagai zerrenda hori behin betiko baztertuko da.

Hautagai zerrendak kolektiboak dira, eta kide guztiak jakitun egon behar dira zerrendaren osaeraz. Bestalde, ezingo da sartu izen gehiago zerrendan gerora.

Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 16.3 artikulua arabera, hautagai zerrenda bakoitzak, ahal izanez gero, posta elektronikoko helbide bat edo harremanetarako baliabide arinen bat zehaztuko du, barrutiko hauteskunde batzordeak, berak bakarrik, prozesu guztian erabili ahaliko duena agiriak eskatzeko, informazioa bidaltzeko edo hautagai zerrendei eskariak egiteko; horrela, azkar eman ahal izango zaie hauteskunde batzordeak hartutako erabakien berri hautagai zerrendei, eta hauteskunde prozesua bizkorragoa eta eraginkorragoa izango da.

Hautagai zerrenda aurkezteko eredu bat doa gidaliburu honekin batera, eta hori erabiltzea gomendatzen da.

Behin-behineko aldarrikapena baldintzatua denean, barrutiko hauteskunde batzordeak jakinaren gainean jarri beharko du zerrendako lehen sinatzailea, ikusitako akatsak zuzendu ditzan.

HAUTESKUNDE BARRUTIAK ETA HAUTAGAI ZERRENDAK

Gidaliburuaren lehenengo fasean esan zen moduan, erroldak hauteskunde barrutien arabera egiten dira eta, hortaz, hautagai zerrendak ere hauteskunde barrutiarri daude lotuta.

Graduko edo lizentziaturako ikasleentzat hauteskunde barrutia ikastegia da. Beraz, kasuan kasuko ikastegiko erroldan agertzen diren pertsona guztiek aurkez dezakete hautagai zerrenda. Horrek esan nahi du Medikuntza eta Odontologia Fakultateak ospitaleetan dauzkan ataletara atxikitako ikasleak, ikastegi horretako ordezkari izateko aurkeztu behar direla (eta guztiak Bizkaiko Campuseko klaustrokide izango dira); Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak Donostiako eta Gasteizko Enpresa Ikasketen unibertsitate eskoletan dauzkan ataletara atxikitako ikasleak, ikastegi horretako ordezkari izateko aurkeztu behar direla (eta guztiak Bizkaiko Campuseko klaustrokide izango dira); edota Zuzenbide Fakultateak Bizkaian daukan atalera atxikitako ikasleak Zuzenbide Fakultateko ordezkari

izateko aurkeztu behar direla (eta guztiak Gipuzkoako Campuseko klaustrokide izango dira).

Graduondoko ikasleen barrutia UPV/EHU da, eta hautagai zerrenda aurkez dezakete graduondoko (Master eta Doktoregoa) ikasleen erroldetan agertzen diren pertsona guztiek (ikasketa horiek egiten diren ikastegietan argitara emandako erroldetan, alegia), ikasketak egiten ari diren ikastegia edo campusa edozein delarik ere.

Azkenik, Giza Zientzietako titulazioko (Esperientzia Gelak) ikasleen barrutia ere UPV/EHU da, eta hautagai zerrenda aurkez dezakete ikasketa horietako ikasleen erroldan agertzen diren pertsona guztiek (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikastegietan argitara emandako erroldetan, alegia), ikasketak egiten ari diren campusa edozein delarik ere.

BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK

Barrutiko (edo ikastegiko) hauteskunde batzordeek egiaztatu behar dute hautagai zerrendak osatzen dituzten kide guztiek bete egiten dituztela hautagai izan ahal izateko baldintza guztiak.

Ikastegietako hauteskunde batzordeek toki egokietan argitaratuko dituzte hauteskunde prozesura aurkeztutako hautagai zerrendak, bai eta barruti bakoitzaren berezitasunak ere, hala dagokionean (azken horrekin esan nahi da, besteak beste, egokitzat har daitekeela hauteskunde mahai bat baino gehiago eratzea; hurrengo puntuaz aztertzen den gaia hain zuzen ere).

Ikastegiko hauteskunde batzorde batek ikusiko balu hautagai zerrenda bateko kide batek edo batzuek ez dituztela betetzen bete beharreko baldintzak, akatsak zuzentzeko epea eman behar zaio hautagai zerrendari. Berebat, behin-behineko aldarrikapena egin ondoren, inpugnazioak aurkeztu ahal izango dira. Kasu batean zein bestean unibertsitateko Erregistro Orokorraren bulegoetan aurkeztu behar dira, **2013ko azaroaren 26ko 12:00ak** baino lehen.

Hauteskunde Batzorde Nagusiak ebatziko ditu inpugnazioak eta behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatuko ditu; era berean, zerrenda horiek ikastegietako eta campusetako iragarki oholetan argitaratzeko agindua emango du. Hautagai zerrenden aurkezpenari buruzko atalean esan denaren ildotik, Erregistro Orokorreko bulegoek lehentasuna eman beharko diete inpugnazioei eta berehala bideratu beharko dituzte. Behin betiko hautagai zerrendak **azaroaren 28an** aldarrikatuko dira.

Bestalde, barrutiko batzordeei dagokie hauteskunde mahaietako kideen zozketa egitea (hiru kide eta ordezkioak), bai eta mahaiak egoki osatu direla egiaztatzea ere.

Horren harira, gogorarazi nahi diegu unibertsitateko kide guztiei **NAHITAEZ ONARTU BEHAR DUTELA MAHAIKO KIDE IZATEA.**

HAUTESKUNDE MAHAIK

a) Hauteskunde mahaien kopurua

Ikastegi gehienetan aldi berean egingo direnez ikasleek Klaustroan eta Ikastegiko Batzarrean dauzkaten ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak, Hauteskunde Batzorde Nagusiak gomendioak egingo ditu, barruti bakoitzean eratu beharreko hauteskunde mahai kopuruaren gainekoak, ikastegietako hauteskunde batzordeek erabakia hartu eta kideen zozketa egin dezaten (batzordeak **azaroaren 21ean** egingo duen bileran egingo da, behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatu ondoren).

Gomendioa izango da, oro har, hauteskunde mahai bat baino gehiago eratzea soilik erroldan 2.000 pertsonatik gora badaude.

b) Hauteskunde mahaien osaera eta horietarako zozketak:

Hauteskunde mahai bakoitzak **mahaiburu bat eta hiru mahaikide** izango ditu. Hala ere, mahaiburu bat eta hiru mahaikide izendatuko dira **txanda bakoitzerako**, eta beren artean ados jarrita antolatuko dute lana, betiere, bakoitzak dituen eginkizunak kontuan hartuta; banaketaren inguruan erabakitakoa aktan jaso beharko da.

Mahaiko kide guztiak kasuan kasuko erroldako hautesleen artetik aukeratuko dira Ikastegiko Hauteskunde Batzardeak egindako zozketaren bidez. Ez da zozketan sartuko hautagai izateko onartutakorik.

Ikasleek Klaustroan izango dituzten ordezkariak (bai ikastegikoak, bai Master eta Doktorego Eskolakoak), eta, hala dagokionean, Ikastegiko Batzarrean izango dituztenak aukeratzeko, hauteskunde mahai bateratuak eratzea aholkatzen da, hau da, 3 boto kutxa izango dituen ikasleen mahai bat eratzea (kutxa horietako bat izango da ikastegiko ikasleek Klaustroan izango dituzten ordezkariak aukeratzeko, eta besteak, hala dagokionean, ikasleek Ikastegiko Batzarrean izango dituzten ordezkariak aukeratzeko eta Master eta Doktorego Eskolako ikasleek Klaustroan izango dituzten ordezkariak aukeratzeko).

Mahaiburua izango da ikastegiko dekanok edo zuzendariak eskuordetutako pertsona, eta hiru mahaikideetatik, bi ikasle ikastegiko ikasleen erroldatik aukeratuko dira zozketa bidez, eta bestea, Master eta Doktorego Eskolako ikasleen erroldatik.

Postu bakoitzerako hiru pertsona aukeratu behar dira zozketa bidez. Horrek esan nahi du mahai bakoitzerako 9 pertsona aukeratu behar direla zozketa bidez (6 pertsona ikastegiko ikasleen erroldatik eta 3 pertsona master eta doktoregoko erroldatik) txanda biak betetzeko. Zozketa egiteko, normalean, zenbaki bat ateratzen da erroldatik eta zenbaki horretatik hasita, mahaikideak eta horien ordezkariak izendatzen dira.

Zozketa bidez aukeratzen diren pertsonak hauteskunde mahai osatuko dute, goizeko txandan edo arratsaldeko txandan, eta hirugarrena horietako edozeinen ordezkaria izango da. Hau da, ordezkariak ez dira beren eginkizunetatik salbuetsita geratuko nahiz eta

titularrak agertu. Horrela, bada, guztien artean ados jarri beharko dira hauteskunde eguneko lanak egiteko.

Hauteskunde mahaiko kide izatea egokituz gero, nahitaezkoa da eginkizun hori betetzea, behar bezala egiaztatutako bidezko arrazoirik izan ezean. Horrelakoetan, idatzi bidez egin beharko zaio uko izendapenari, idatzia Ikastegiko Hauteskunde Batzordeko idazkariari zuzenduta eta izendapenerako jakinarazpenean zehaztutako epearen barruan.

Ikastegiko Hauteskunde Batzordeko idazkariari dagokio zozketa bidez aukeratu diren eta kargua onartu ezina egiaztatzeko arrazoiak eta agiriak dituzten pertsonen alegazioak hartzea. Betebehar akademikoak ez dira arrazoi justifikatutzat hartuko; izan ere, hauteskunde egunean lehentasuna baitaude hauteskondeekin lotutako erantzukizunek. Justifikatutako arrazoi guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira, ez du balio soilik alegazioa aurkezteak.

2013ko azaroaren 21ean bertan, zozketaren emaitza jakinarazi behar zaie zozketa bidez izendatutako pertsonari. Pertsona horiek **azaroaren 28ko 12:00etara** arteko epea izango dute kargua onartu ezina justifikatzeko arrazoiak aurkezteko; izan ere, justifikazio hori onartuz gero, kargua onartu ezina adierazi duen pertsona ordezkatu egin behar baita, eta ordezkoiari jakinarazpena bidali.

Bertaratu ezina adierazten dutenen ordezeko izendatutakoekin arazo bat dago, hain zuzen ere, mahaian ez aritzeko bidezko arrazoiak izanda ere, ez dutela denborarik izango arrazoiok aurkezteko; beraz, **komenigarria litzateke erroldako hurrengo pertsonak ere** (erroldan atzeren dagoen mahaikidearen ondoren daudenak) **jakinaren gainean jartzea**, agian mahaian egon beharko dutela jakin dezaten.

Giza Zientzien titulazioan, hauteskunde mahai bat eratuko da campus bakoitzean, Hauteskunde Batzorde Nagusiak egingo duen zozketa baten bidez.

Ahalegin guztiak eginda ere, mahaiko zenbait kide bertaratu ez direlako ezinezkoa bada mahaia eratzea, bertan daudenek unean bertan emango diote egoeraren berri hauteskunde batzordeari, haren ustez hauteskundeak behar bezala egiteko egokien diren pertsonak

aukera ditzan, edo ikastegiko dekanok edo zuzendariaren esku utzi dezan ardura hori. Aurreko guztia gorabehera, eta kasu berezietan, hauteskunde mahaiko gutxieneko kide kopurua ezingo da hirutik (3) beherakoa izan.

c) Ikuskariak izendatzeko eskaria:

Bukatzeko, adierazi hauteskunde mahaietarako ikuskariak izendatzeko eskaera egin diezaieketela Klaustorako hautagaiek Hauteskunde Batzorde Nagusiari **abenduaren 2ko 12:00etara** arte. Eskarian zehaztuta egon beharko dira proposatu nahi diren ikuskarien izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta horrekin batera interesatuek sinatutako onarpen idatziak aurkeztu beharko dira. Ikuskari titularra eta ordezkoa izendatu ahaliko dira, hartara txandak egin ahal izango dituzte hauteskunde egunean. Era berean, Ikastegiko Batzarrerako kideen aukeraketan ere ikuskariak izendatzeko eskaria egin ahaliko zaio Ikastegiko Hauteskunde Batzordeari.

Idazkari nagusiak izendatuko ditu ikuskariok eta berehala emango die horren berri ikastegietako hauteskunde batzordeei.

Ikuskariak ezin izango dira izan hauteskunde mahaietako kide; beraz, horietako baten bat mahaiko kide izendatuta badago, kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeak haren ordezkoa izendatu beharko du lehen azaldutako irizpideei jarraituz.

HAUTESKUNDE KANPAINA

Barrutiko Hauteskunde Batzordeak bilera bat egingo du hautagaiekin, propagandarako (hauteskunde kanpainarako) egutegia adosteko. Hauteskundeetako propaganda ekitaldiak behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatu eta gero hasiko dira (**azaroaren 28an**), eta botoa emateko eguna baino 24 ordu lehenago bukatu. Garrantzitsua da argi geratzea **abenduaren 9an** ezin dela hauteskundeetako propaganda ekitaldirik egin.

Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko Arautegiak ezarritakoaren arabera, ikasleen hautagai bakoitzak eskolako ordubete izango du ikastegi bakoitzean programa azaltzeko. Ordu horretan eten egingo dira eskolak, eta leku egokia utziko zaio zeregin hori betetzeko.

Barrutiko hauteskunde batzordeek erabakiko dute ordubetea nola antolatu; izan ere, aukera bat izan daiteke ordu hori tartetean banatzea, hartara ez baita izango irakasgai bakarria eragindakoa.

ANTOLAKETA LANAK

Botoa emateko txartel ofizialak eta gutun azalak Barrutiko Hauteskunde Batzordeak onartuko ditu **azaroaren 27ko** bileran. Komenigarria litzateke hautagai zerrenda bakoitzerako boto txartel bat izatea, botoak errazago zenbatzen direlako, baina, dena dela, denak formatu eta kolore berekoak izan behar dira.

Bozketan gutun azalak erabili beharko dira nahitaez eta, gainera, gutun azal guztiak berdinak izan beharko dira. Batzuetan, paper gehiegi ez gastatzeko asmoz, gutun azal markadunak edo idatziak erabili izan dira, baina ez boto emaile guztientzako beste. Halakorik, baina, ezin da egin, botoa sekretua baita, eta zaindu egin behar dira alderdi formalak zein materialak hori bermatzeko.

Botoa emateko txartelak eta gutun azalak **abenduaren 2rako** egin behar dira, egun horretan hasiko delako botoa alde aurretik emateko epea.

BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA: OHARRAK

Puntu hau hirugarren eta azken faseko azalpenei dagokie. Azalpen horiek **azaroaren 28tik** aurrera bidaliko dira, 2. fasean hartu behar den erabakietako bat delako barruti bakoitzean eratu beharreko hauteskunde mahaien kopurua. Hala ere, botoa alde aurretik emateari buruzko hainbat ohar bildu dira dokumentu honetan.

Botoa alde aurretik emateko egunak **abenduaren 2a, 3a eta 4a** izango dira.

Horretarako, hauteskunde batzordeek botoa alde aurretik ematea onartuko dute eta behar den ziurtagiria emango dute (eredu bat erantsi da). **Azaroaren 27an** barruti bakoitzeko hauteskunde batzordeak egingo duen bileran zehaztuko da noren aurrean eta zein ordutegitan emango den botoa alde aurretik.

Barruti bakoitzeko hauteskunde batzordeak erabaki dezake, kontuan hartuta ikastegi baten atal jakin baten berezitasunak, hauteskunde mahairik ez eratzea toki horretan; hori gertatzen denean, atal horretako boto emaileek botoa alde aurretik eman ahal izango dute ataleko arduradunen bat bertan dagoela.

Ikasleen parte hartzea bultzatzeko era bat izan daiteke botoa alde aurretik emateko tokia eskolak ematen diren leku bera izatea.

Botoa emateko, boto txartel ofiziala erabiliko da gutun azal ofizial itxian sartuta. Gutun azal itxi hori eta NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopia bat beste gutun azal batean sartu beharko dira (identifikazio dokumentua indarrean egon behar da). Gutun azal horren kanpoaldean boto emaileak bere izen-abizenak adierazi beharko ditu, baita botoa alde aurretik emateko aukeratu duen ikastegiko ikaslea den ere, eta hegalean sinatu ondoren gutun azala zinta itsasgarriaz itxi beharko du.

Botoa alde aurretik emateko, kasuan kasuko hauteskunde erroldan dagoen boto emaileak **berak** joan beharko du botoa ematera.

Aldez aurretik emandako botoak bozketaren egunean bertan bidaliko zaizkio kasuan kasuko hauteskunde mahaiko buruari, hirugarren faseko azalpenetan adieraziko den moduan.

UNIBERTSITATEKO KLAUSTROKAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTAGAI ZERREDA OSATZEKO EREDUA

- **(Jarri ikastegiaren izena).....KO IKASLEAK**
- **GRADUONDOKO IKASLEAK**
- **ESPERIENTZIA GELETAKO IKASLEAK**

(Aukeratu eta bete dagokiona)

HAUTAGAI ZERRENDAREN IZENA (aukeran)

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	SINADURA (JATORRIZKOA)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		

Hautagaien izenak ipintzeko lerroak kendu edo gehitu egin daitezke, premien arabera. Orria makinaz bete behar da edo letra larriz, argi eta garbi. Sinadurak jatorrizkoak izan behar dira.

POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA EDO FAX ZENBAKIA:

(Helbide horretara edo fax horretara bidaliko ditu Hauteskunde Batzordeak jakinarazpenak; beraz, hauteskunde prozesu osoan egon beharko da erabilgarri).

.....(e)n,(e)koaren(e)an.

IKASTEGIKO BATZARRERAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTAGAI ZERRENDA OSATZEKO EREDUA

- **(Jarri ikastegiaren izena).....KO IKASLEAK**

HAUTAGAI ZERRENDAREN IZENA (aukeran)

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	SINADURA (JATORRIZKOA)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		

Hautagaien izenak ipintzeko lerroak kendu edo gehitu egin daitezke, premien arabera. Orria makinaz bete behar da edo letra larriz, argi eta garbi. Sinadurak jatorrizkoak izan behar dira.

POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA EDO FAX ZENBAKIA:

(Helbide horretara edo fax horretara bidaliko ditu Hauteskunde Batzordeak jakinarazpenak; beraz, hauteskunde prozesu osoan egon beharko da erabilgarri).

.....(e)n,(e)koaren(e)an.

BOTOA ALDEZ AURRETIK EMAN IZANAREN ZIURTAGIRIA
UNIBERTSITATEKO KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEAK 2013

Nik,jaunak/andreak, ikastegiko idazkari akademikoak (ikastegia:), honako hau ziurtatzen dut:
.....jaunak/andreak (NAN zenbakia:; hauteskunde taldea:) aldez aurretik eman du Klaustrorako hauteskundeetarako botoa ikastegi honetan eta nire aurrean(e)ko(a)ren(e)an.

Sin.:

(IDAZKARI AKADEMIKOAK ESKUORDETUTA)

BOTOA ALDEZ AURRETIK EMAN IZANAREN ZIURTAGIRIA
IKASTEGIKO BATZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2013

Nik,jaunak/andreak, ikastegiko idazkari akademikoak (ikastegia:.....), honako hau ziurtatzen dut:
.....jaunak/andreak (NAN zenbakia:; hauteskunde taldea:) aldez aurretik eman du Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeetarako botoa ikastegi honetan eta nire aurrean(e)ko(a)ren(e)an.

Sin.:

(IDAZKARI AKADEMIKOAK ESKUORDETUTA)